

2026

EKINTZA PLANA

GHEE-CEESPV

GIZARTE HEZITZAILEEN
EUSKADIKO ELKARGOA
COLEGIO DE EDUCADORAS
Y EDUCADORES SOCIALES
DEL PAIS VASCO

GHEE
CEESPV





Honen bidez, Gobernu Batzordearen 2026rako Urteko Plana azaltzen da. Plan horren helburua da urtean zehar lortu eta gauzatu nahi diren helburuak eta ekintzak islatzea. Era berean, plangintza horrek Batzordearen kudeaketaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna gisa balio du, eta horrek erakunde gisa prozesu irmo bat eraikitzea ahalbidetzen digu.

2026ko Urteko Planak egituratzen jarraitzen du, Plan Estrategikoaren ildo estrategiko berak oinarri hartuta, nahiz eta garatu beharreko ekintzak zabaldu egiten diren. Egiten ari garen bezala, horietako batzuek aipamen berezia merezi dute duten garrantziagatik, ahaleginak nora bideratuko diren adierazten baitute.

Aurten, orain arte egindako ekintzak sendotu eta ebaluatu egingo dira.

Horrela, bigarren urte honetan, lanbidearen defentsan sakontzen jarraituko dugu erakundeen aurrean, eta gizarte osoari helarazten gure figurak duen garrantzia hainbat esparrutan garatzen diren gizarte- eta hezkuntza-prozesuetan. Horretarako, Elkargoak ingurune, erakunde eta kontseilu parte-hartzaileetan duen parte-hartzea sendotuko da, gizarteratzearen eta haurren eta nerabeen eskubideen inguruko sare-lana indartuz.

Era berean, arreta elkargoaren lana handitzean, parte-hartzea handitzean eta elkargoaren egiturak indartzean jarriko da, Gizarte Hezkuntzako profesionalen erreferentziazko erakunde gisa egitura sendoa mantentzeko. Elkargokideekiko komunikazio- eta hurbiltasun-estrategiak indartuko dira. Ildo horretan, egungo komunikazio-estrategia azpimarratzen da, Idazkaritza Teknikoan langile gehiago daudela aprobetxatuz, harreman jarraituagoa eta hurbilagoa bermatzeko, bai eta ordezkartzei, batzordeei eta lantaldeei ikusgarritasun handiagoa emango dieten ekimenak bultzatzeko ere.

Azkenik, elkargokideentzako zerbitzuak indartu nahi dira, kanpoko eta bertako prestakuntza-eskaintza zabalduz, eta gure lanbidearen antzeko erakunde eta entitateekin lankidetzak-hitzarmen berriak berrikusiz eta ezarriz.

Sei ildo estrategikotan banatutako sei helburu nagusiri erantzutea da Plan Estrategikoaren funtsezko egitekoa:



Sei ildo estrategikotan banatutako sei helburu nagusiri erantzutea da Plan Estrategikoaren funtsezko egitekoa:

ILDO ESTRATEGIKOA		HELBURU
1	ELKARGOAREN INDARTZEA	Elkargoan parte hartzeko dinamikak bultzatzea eta erraztea, elkargokideen beharretara eta erakundearen errealitatera egokituta, eta elkargoko kide egitea areagotzea, elkargoaren barne-egitura sendotzeko.
2	GIZARTE HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEAREN GARAPEN TEKNIKOA	Lanbidearen hausnarketa eta eraikuntza teoriko-praktikoa sortzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte hezkuntza-arloko esku-hartzearen ezagutza zientifikoari ekarpena egitea ere.
3	LANBIDEAREN DEFENTSA	Lanbidearen defentsa zaintzea, administrazio publikoarekiko eta beste erakunde batzuekiko harremanaren bidez, bai eta gizarte hezkuntza-arloko esku-hartzeari eragiten dioten lege, dekretu, agindu eta abarrei ekarpenak eginez eta estrategia juridiko propioa ezarriz ere.
4	HARREMAN INSTITUZIONALAK	Administrazio publikoarekin eta beste erakunde batzuekin harremanak sendotzea, esku-hartze sozialaren erreferentzia gisa mantenduz.
5	ELKARGOKIDEENTZAKO ZERBITZUAK	Elkargokideentzako zerbitzu-zorroa optimizatzea eta handitzea, haien eta lanbidearen beharren arabera.
6	ADMINIZTRAZIOA, EKONOMIA ETA KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETA	Administrazioko eta kudeaketako sistema etiko eta kalitatezkoa garatzea, elkargokideen beharretara eta elkargoaren errealitatera egokitua.

1. ELKARGO INDARTZEARI BURUZKO ILDO ESTRATEGIKOA (Erreferenteak: Saioa eta Raúl)

Elkargoan parte hartzeko dinamikak bultzatzea eta erraztea, elkargokideen beharretara eta erakundearen errealitatera egokituta, eta elkargoko kide egitea areagotzea, elkargoaren barne-egitura sendotzeko.

ARLO	HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK
<u>ANTOLAKETA ETA KOHESIOA</u>	Gobernu Batzordearen funtzionamendua indartzea. Ordezkaritza, batzorde eta lantaldeetan parte hartzen duten pertsonen parte-hartzea eta kohesioa areagotzea Partaidetza-organoen arteko koordinazioa sustatzea.	- Gobernu batzordearen hileroko bilerak - Batzorde iraunkorraren bilerak hamabostean behin - Karguen eta zereginen banaketa - Partaidetza-organoen funtzionamendua sendotzea (lurralde-ordezkaritzak, batzordeak eta lantaldeak) - Gobernu Batzordearen bilera zabalduak - Orain arte egindako lanaren dokumentazioa biltzea - Batzorde eta lantalde berriak eratzea
<u>KOLEGIAZIOA</u>	Kolegiazioa handitzea, haren egitura indartzeko	- Partaidetza-organoen lana zabaltzea - Publizitate estrategiaren garapena - Urteko ekitaldien antolaketa - Ate irekien jardunaldiak egitea
<u>PARTAIDETZA</u>	Elkargoaren parte-hartze aktiboari balioa ematea eta erraztea	Parte-hartze planaren garapena

2. GIZARTE HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEAREN GARAPEN TEKNIKOARI BURUZKO ESTRATEGIA-ILDOA (Erreferenteak: Patri eta Sara)

Lanbidearen hausnarketa eta eraikuntza teoriko-praktikoa sortzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte hezkuntza arloko esku-hartzearen ezagutza zientifikoari ekarpena egitea ere.

ARLO	HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK
<u>FOROAK</u>	Ikuspegi profesionala ematea esku-hartze sozialarekin lotutako foroetan	• Erreferentziako pertsonen zerrenda eguneratzea • Izaera teknikoko foroetan parte hartzea • Administrazio publikoko kontseiluetan eta batzordeetan parte hartzea • Prestakuntza-guneetan eta jardunaldietan parte hartzea
<u>DOKUMENTAZIOA</u>	Lanbideari dagozkion dokumentu teknikoen lanketa sustatzea	• Lanbidearen garapen teknikoarekin lotutako dokumentazioa lantzea • Lanbidearekin lotutako argitalpenetan, ikerketa – proiektuetan eta plan estrategikoetan parte hartzea
<u>DOKUMENTAZIOA ZABALTZEA</u>	Elkargoan egindako dokumentazio teknikorako sarbidea erraztea	• Elkargoaren dokumentazio teknikoa argitaratzea • Lan profesionalak hainbat bidetatik zabaltzea • Proiektu-lehiaketak, TFGak eta TFMak antolatzea

3. LANBIDEAREN DEFENTSARI BURUZKO ILDO ESTRATEGIKOA (Erreferenteak: Sara eta Patri)

Lanbidearen defentsa zaintzea, administrazio publikoarekiko eta veste erakunde batzuekiko harremanaren bidez, bai eta gizarte hezkuntza arloko esku.hartzeari eragiten dioten lege, dekretu, agindu eta abarrei ekarpenak eginez ere, eta estrategia juridiko propioa ezartzea.

ARLO	HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK
<u>GIZARTE HEZKUNTZA ARLOKO</u> <u>ESKU-HARTZEAREN</u> <u>DEFENTSA</u>	Norberaren espazio profesionaletan edo beste profesional batzuekin partekatutakoetan gizarte hezkuntza-arloko esku-hartzearen defentsa zaintzea	- Izaera pedagogikoko ekintzak diseinatzea eta ezartzea erakunde kontratatzaileekin, lanbide-profila definitzen eta defendatzen laguntzeko. - Gizarte-hezkuntzako lanbide-figurarako funtzio eta kompetentzia profesionalen katalogoa berrikustea eta hari ekarpenak egitea - Batzorde sektorialetara joatea
<u>ESTRATEGIA JURÍDIKOA</u>	Gure figura profesionala defendatzeko estrategia juridikoa ezartzea	Estrategia juridikoa berriz definitzea

4. ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO ILDO ESTRATEGIKOA (Erreferenteak: Raúl eta Saioa)

Administrazio publikoarekin eta beste erakunde batzuekin harremanak sendotzea, esku-hartze sozialaren erreferentzia gisa mantenduz.

ARLO	HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK
<u>ADMINISTRAZIO PUBLIKOA</u>	Administrazio publikoarekiko harremanak eguneratzea Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearekin zerikusia duten erakundeekin baterako lana sustatzea.	• Aurkezpen-bilerak Eusko Jaurlaritzan • Aurkezpen-bilerak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-Aldundietan.
<u>UNIBERTSITATEAK</u>	EAEn Gizarte Hezkuntzako gradua ematen duten unibertsitate-zentroekin (EHU, Deustu eta UNED) egindako lankidetza-hitzaermenak eguneratzea eta indartzea Lan komuna egonkortzea, unibertsitateetan jarraitutasunez	• Orain arte unibertsitateekin egiten zen lanari eustea • Unibertsitateekin egindako hitzaermenak berrikustea eta eguneratzea • Lurralde-ordezkaritzei laguntzea eta gainbegiratzea, hitzaermenetan bildutako jardueren dagokienez • Parte hartzeko organoen arteko lan koordinatua antolatzea
<u>ERAKUNDE PROFESIONALAK</u>	Gizarte Hezkuntzako Elkargoen Kontseilu Nagusian parte-hartze aktiboa izaten jarraitzea Esku-hartze sozialaren arloan diharduten beste elkargo eta elkarte profesional batzuekiko harremana eta lankidetza sustatzea	• CGCEESen batzarretan parte hartzea • CGCEESen gobernu-batzarrean parte hartzea • Gizarte Hezkuntzari buruzko Estatuko Biltzarrera joatea eta bertan parte hartzea • Erakundeekin batera egindako lana baloratzea,



		planifikatzea eta aktibatzea
<u>SINDIKATUAK ETA HIRUGARREN SEKTOREA</u>	Sindikatuak eta hirugarren sektoreko erakundeek esku-hartze sozialaren esparruan lanbidearen zeregina garrantzitsutzat jo dezaten sustatzea	• Komunikazio- eta harreman-irizpideak definitzea • Agenteak identifikatzea • Sindikatuak eta hirugarren sektoreko erakundeekin elkartzeko guneak



5. ELKARGOKIDEENTZAKO ZERBITZUEI BURUZKO ILDO ESTRATEGIKOA (Prestakuntzako erreferenteak: Elene eta Bittor / Zerbitzuetako erreferentak: Iker eta Patri)

Elkargokideentzako zerbitzu-zorria optimizatzea eta handitzea, haien eta lanbidearen beharren arabera.

ARLOA	HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK
<u>PRESTAKUNTZA</u>	Elkargokideen beharretara egokitutako prestakuntza eta espazioak eskaintzea	• Prestakuntza-beharren diagnostikoa aldian behin eguneratzea • Eskaintza propioko jardunaldiak, foroak eta topaketak
<u>GIZARTE-LAN ORIENTAZIOA</u>	Lan eskaintzak zabaltzeko zerbitzua optimizatzea Elkargokide profesionalentzako orientazio soziolaboraleko zerbitzu bat eraikitzea	• Elkargokidei lan eskaintzak bidaltzen jarraitzea • Gai honekin lotutako liburuxkak eguneratzea • Laneko orientazio- eta laguntza-zerbitzua abian jartzea
<u>ELKARGOAREN ESPAZIOAK</u>	Bileretarako eta ikerketetarako elkargoko gune presentzial eta telematikoen erabilera erraztea	• Elkargoaren egoitza eta online plataformaren eskaintza, elkargokideek erabiltzeko. • Unibertsitateko dokumentazio-zentroetara sartzeko negozioazio- proposamena. • Dokumentu- zentro propioa aktibatzea



<u>HITZARMENAK ZERBITZU -</u> <u>ERAKUNDEEKIN</u>	Beste zerbitzu-erakunde batzuekiko hitzarmenen garapena optimizatzea	• Dauden hitzarmenak berrikustea eta eguneratzea • Aseguru-erakundeekin hitzarmenak mantentzea • Hainbat aukera balioestea, honako hauekin: - Prestakuntza erakundeak - Laguntza psikologikoa - Lege- aholkularitza - Euskarazko zerbitzua
--	---	--

6. ADMINISTRAZIO, EKONOMIA ETA KOMUNIKAZIO-KUDEAKETARI BURUZKO ILDO ESTRATEGIKOA (Administrazio eta komunikazio erreferenteak: Elene / Ekonomia erreferentea: Iker)

Administrazioko eta kudeaketako sistema etiko eta kalitatezkoa garatzea, elkargokideen beharretara eta elkargoaren errealitatera egokitua.

ARLO	HELBURU ZEHATZAK	EKINTZAK
<u>ADMINISTRAZIOA</u>	Elkargoaren barne-administrazioko zereginak optimizatzea, lanbide-egitua sendotuz	• Elkargokideen kudeaketa • Elkargoaren datuak eta informazioaren kudeaketa • Arreta telefonikoa, telematikoa eta presentzialari erantzutea
<u>DIRUZAINZTA</u>	Baliabideak kudeatzea, erakundearen kalitate administratiboa eta bideragarritasun ekonomikoa bermatuz	• Urteko balantzeak eta aurrekontuak egitea • baliabide ekonomikoen kudeaketa • Kudeaketa etikoko plan bat egiteko balorazioa
<u>KOMUNIKAZIOA</u>	Barne komunikazio koherentea eta etengabea zaintzea Kanpo komunikazioko egungo prozedurei eustea eta prosedura berriak sortzea	• Partaidetza-organoen artean partekatutako ekintzen eta ekitaldien egutegia erabiltzea • Argitalpenak zabaltzea web orriaren, sare sozialen eta posta elektronikoaren bidez



PERTSONAL KUDEAKETA

Elkargoko lantaldearen ongizatea eta funtzionamendu egokia zaintzea, antolaketa-baldintza ezin hobeak bermatuz eta Idazkaritza Teknikotik etengabeko prestakuntza sustatuz, administrazio-prozesuak eta kudeaketa instituzionalekoak sostengatzen eta artikulatzen dituen oinarritzko taldea den aldetik.

- Sexu-jazarpenaren protokoloa idaztea
- Idazkaritza teknikoaren formazioak